



Sagu baten garuneko
tumore-zelula diferentziatuak
ARG.: Bruno Cisterna eta Eric Vitriol (AEB).





Mirarizko irudiak, mikroskopioaren argira

Nikon Small World 2024

Sagu baten garuneko tumore-zelula diferentzia-tuen argazki honekin, Bruno Cisterna eta Erico Vitriol ikertzaileek (Augusta Unibertsitatea, AEB) [Nikon Small World](#) lehiaketaren 50. edizioko lehenengo saria irabazi dute.

Irudian garbi ikusten dira zelulen aktinazko zitoeskeletoa, mikrotubuluak eta nukleoak. Hain zuzen ere, Cisterna eta Vitriol ikertzen ari dira gaixotasun neurodegeneratiboetan nola eragiten duten zelularen zitoeskeletoan gertatzen diren asaldurek; bereziki, mikrotubuluetan gertatzen diren asaldurek. Mikrotubuluek zeluletako garraio-sare gisa funtzionatzen dute, eta Cisternaren taldeak frogatu du PFN1 proteinak funtsezko funtzioa betetzen duela garraio-sare horren funtzionamenduan ([Journal of Cell Biology](#) aldizkarian argitaratu zuten ikerketa).

Irudia lortzeko, hiru hilabete inguru behar izan zituzten zelulak tindatzeko prozesua hobetzeko, egitura guztiak ondo ikus zitezten. Gero, zelulak bost egunez diferentziatzen utzi ondoren, hiru orduz egon ziren mikroskopiotik begira, zelula diferentziatuak eta ez-diferentziatuak elkarrekintzan ari ziren gunee eta une egokia topatu arte.

Irudi honek irabazi du, baina [beste 87](#) ere nabarmendu ditu lehiaketako epaimahaia jasotako mila irudietatik. Haietako batzuk daude hurrengo orrietan.

Olagarro-arrautzak (*Octopus hummelincki*)

ARG.: Thomas Barlow eta Connor Gibbons (AEB)






Goroldio-esporofito bat esporekin (berdeak)
ARG.: Joshua Coogler (AEB)


Polena armiarma-sarean

ARG.: John-Oliver Dum (Alemania)



Polena euli baten begi konposatuan

ARG.: Uwe Lange (Alemania)





Rhynchophorus ferrugineus gurgurioaren aurrealdea
ARG.: Sherif Abdallah Ahmed (Egiptoko Arabiar Errepublikak)



Intsektu baten urrezko arrautzak salbia-hostoan
ARG.: Jochen Stern (Alemania)